

## ELKARTEGIAK ETA INDUSTRIALDEETARAKO PROGRAMA - 2019:

Elkartegiak enpresa-zentroetan edo industria-pabilioietan kokatutako enpresetako instalazioak edo makinak modernizatzea.

Erakunde onuradunak (14. art)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azpiegiturak SAU foru-sozietate publikoak kudeatzen dituen elkartegietan kokatutako enpresak.</li> <li>• Bizkaia Foru Aldundiaren partaidetza duten industrialdeetan kokatutako enpresak.</li> <li>• 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako industrialdeetan kokatutako enpresak.</li> </ul>
Baldintzak (14. art)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.</li> <li>• I. eranskinean zehazten diren industrialdeetan kokatuta egotea.</li> <li>• Jabetzan izatea edo errenta-araubidean egotea eta errentatzailearekin hartutako betebeharrak egunean izatea.</li> <li>• Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.</li> <li>• Ekonomia-jardueren gaineko zergan epigrafe egokian alta emanda egon behar da. Gainera, banakako enpresaburuak badira, Gizarte Segurantzaren langile autonomoen araubide berezian baita ere, eta Merkataritzako sozietateak badira, Merkataritzako Erregistroan inskribatuta.</li> <li>• Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera</li> <li>• Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.</li> <li>• Eskabidea aurkeztu aurreko 6 hilabeteetan 15 langile edo gutxiago izatea plantillan.</li> <li>• Azken zerga-ekitaldian: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 3.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-kopurua izatea.</li> <li>✓ 3.000.000 euro baino gutxiagoko balantzea izatea.</li> </ul> </li> <li>• Aurreko ekitaldian, programa berdina dela-eta diru-laguntzarik jaso ez izana.</li> <li>• Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan, gutxienez, hastea jardueran.</li> <li>• Sozietate publikoa, zuzenbide publikoko erakundea eta ondasun erkidegoa, eta sozietate zibila ez izatea.</li> </ul>
Diruz lagun daitekeen egitea (15. art)	Makinak edo ekipamenduak modernizatu, hobetu edo gehitzeko egindako inbertsioak, lehiakortasuna eta ingurumenaren kudeaketa hobetzeko eta langileen segurtasuna eta berdintasuna hobetzeko badira.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak (16. art)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informatitako aplikazio eta programa erosi berriak. Erabilerako lizentziak berritzea diru-laguntzetatik kanpo geratzen da.</li> <li>• Merkataritza elektronikoa ahalbidetzen duten web orriak sotzea edo egokitzea.</li> <li>• Informazioa prozesatzeko ekipoa.</li> <li>• Makineria.</li> <li>• Tresneria.</li> <li>• Instalazioak egokitu edo hobetzeko lanak.</li> <li>• Garraio-elementuak (material edo salgaien lurreko garraiorako bakarrik).</li> </ul> <p>2018ko azaroaren 1aren eta 2019ko urriaren 31ren (biak barne) bitarteko faktura duten inbertsioak.</p>
Onurak (17. art)	<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen inbertsioaren %25 izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1.000 eurora arte, aplikazio informatikoetan, informazioa prozesatzeko ekipoetan eta web orrietan.</li> <li>• 4.000 eurora arte, gainerako inbertsioetan.</li> </ul> <p>Diru-laguntzaren zenbateko osoa ezin da izan 5.000 euro baino handiagoa erakunde bakoitzarentzat.</p>
Araudia eta Laguntzak emateko araubidea	<p>25/2019 Foru Dekretua, martxoaren 20koa (BAO zk. 62, 2019ko martxoaren 29koa).</p> <p>Diru-laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emango dira. Diru-laguntzak emateko, aurkezturiko eskabideak erkatu egiten dira, 22.artikuluko ebaluazio-irizpideak kontutan hartuta.</p>
Eskabideak aurkezteko era eta epea (18. eta 20. art.)	<p>Eskabideak aurkezteko epea argitalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 30eko 13:30ean bukatuko da.</p> <p>Eskabidea Internet bidez aurkeztuko da «Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtuala» atalean (<a href="http://www.bizkaia.eus">www.bizkaia.eus</a> - Izapideak - Ekonomi eta Lurralde Garapeneko Saileko Bulego Birtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (lizenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p>